

7

Euskararen hautematea Azkoitian XXI. Mendean

Maxizatzen Euskaldunon Elkarte

maxizatzen@gmail.com

Sarrera-data: 2012-11-15 / Onartze-data: 2012-12-17

Laburpena. Azkoitian euskaraz beste herri askotan baino errazago bizi badaiteke ere, herri bezala orain arte egin duguna baino ariketa sakonagoa egin beharko genuke hizkuntza kontuak ahotan hartzen ditugunero. Egoera “ona” izanik ere asko dira puntu ahulak. Nukleo sinbolikoa ahula da oso. Hiztun osoak gutxiengo gara eta ikusteko dago benetan, ustez hiztun oso garenak hala garen edo ez. Mendeko hizkuntz portaerak nagusi dira belaunaldi guztietan, eta hizkuntzak bete ditzakeen funtzioetatik bitan bakarrik da euskara hegemonikoa. Gai gara gure egoera deskribatzeko baina ez dakigu zergatik edo nola iritsi garen egoera honetara, eta ez dakigu zer egin beharko litzatekeen euskarak funtzio guztiak eskura ditzan edo mendeko jarrerak uzteko. Arnasgunea ote garen? Ziurrenik bai, baina ez hainbatetan deskribatu duten euskararen arkadia orbangabea. Gurean ere erro sakoneko arazoak izan badira. • **Hitz-gakoak:** *euskara, hiztuna, identitatea, funtzio-banaketa, motibazioa, erabilera, arnasgunea.*

Abstract. Although it is obvious that it is easier to lead a Basque speaking life in Azkoitia as compared with other areas, we should look at our situation as a linguistic community much deeper whenever we talk about the language issue. In spite of a “good” situation there are many weak areas. The symbolic core is very weak. Full speakers of Basque are a minority and it is still to be seen if those who are considered full speakers are really so. Submissive attitudes are common at all ages, and Basque is hegemonic only in two of the functions a language fulfils. Speakers are able to describe our situation but we cannot explain why or how we reached that point. And we don’t know what should be done so that Basque could recover all its functions or how to change this submissive behaviour. Are we really a *arnasgunea* (Geographical space, usually town or village, with high concentration of Basque speakers)? Probably yes, but not the too often described heavenly arcadia. We, too, must face very deep basic problems. • **Key words:** *the Basque language, speaker, identity, distribution of tasks, motivation, use.*

EUSKARAREN HAUTEMATEA AZKOITIAN XXI. MENDEAN

Urte luzetan euskarari buruzko gogoeta saio, ikerketa eta eztabaidetan Urolaldea ingurune pribilegiatua dela behin eta berriz entzun ondoren, Azkoitiko errealitatea *urrutiko intxaurrak hamalau,...* izan zitekeela susmatzen hasi ginen Maxixatzen euskaldunon elkarteko kideak. Gure egoeraren gozoak eragindako apar-bitsetan eroso, eta hainbatetan harro, agertzen ohituta egonik ere, bazen gure burmuinaren izurrik zokoenean etengabe bristadan ari zen argi gorri bat.

Euskaldunak eta ia-euskaldunak biztanleriaren %90 gara herrian, kale erabilera %77aren bueltan dabil eta herriko haur guztiak D ereduan eskolatan dira DBH eta Batxilergoa bukatu arte. Zerbitzu publiko guztietan dago euskaraz egingo dizun norbait (ahoz behintzat) eta herriko talde bat ezik, aisialdi eta kirol taldeen eguneroko dinamika euskaraz da (ahoz, batez ere) Udalak badu euskara teknikari bat, euskaldunon elkarteak ere ari da lanean, AEKn urtero osatzen dira talde bat edo bi, mintzalagun programak 3. urtea du herrian eta herritarrek euskararekiko oso jarrera baikorra dute. Hala dirudi, behintzat, han-hemenka modu informalean jaso dugunaren arabera.

Begiratu batera ez da kezkatzeko motiborik, baina herriari pixkat barrurago begiratu gero bestelako datuak azaltzen dira: liburutegian helduek mailegatzeko dituzten 10 liburuetatik 8 gaztelaniaz mailegatzeko dira, eta beste biak ez dira beti euskaraz izaten. Haurren kasuan erdiak hartzen dira euskaraz eta beste erdiak gaztelaniaz. Azkenaldian sortu diren bizpahiru musika taldek ingelesa aukeratu dute euren sorkuntza lanerako, tabernetan ez da euskal musikarik entzuten, gehien irakurtzen den komunikabidea gaztelaniaz dago eta gaztelania gero eta gehiago entzuten da kalean, haur zein helduen artean.

Indarguneak eta ahulguneak konparazioan jarrita norberak izan ohi duen begirada positibotik irakurri daitezke datuok, edo ilunetik hartuta puntu ahulenei arreta jarri eta hortik azaldu egun Azkoitian euskarak bizi duen egoera.

Batean zein bestean subjektibotasunak begirada lausotu ziezagukeelakoan, azterketa sakonagoa egiteko beharra ikusi genuen, gure herriko errealitate soziolinguistikoari neurria hartu eta bizi gaituen benetakoko egoeratik abiatuta aurrera begira garatu beharreko egitasmoak oinarri eta helburu errealekin hasteko. Orain arteko inertzia dinamikak makaldu eta hiztun komunitate modura ditugun gabeziak osatzeko propio sortutako egitasmoak lantzea izan beharko luke ikerketa honen ekarpen nagusia.

Euskaldunak eta ia-euskaldunak biztanleriaren %90 gara herrian, kale erabilera %77aren bueltan dabil eta herriko haur guztiak D ereduan eskolatan dira DBH eta Batxilergoa bukatu arte. Zerbitzu publiko guztietan dago euskaraz egingo dizun norbait (ahoz behintzat) eta herriko talde bat ezik, aisialdi eta kirol taldeen eguneroko dinamika euskaraz da (ahoz, batez ere) Udalak badu euskara teknikari bat, euskaldunon elkarteak ere ari da lanean, AEKn urtero osatzen dira talde bat edo bi, mintzalagun programak 3. urtea du herrian eta herritarrek euskararekiko oso jarrera baikorra dute.

Bai eztabaida taldeetan eta baita ikasleei pasatako inkestan ere, Txepetxen iritziz hizkuntza komunitatea osatzen duten hiru elementuei buruz galdetu genien: hiztuna, gizartea eta hizkuntza.

METODOLOGIA

I

8 eztabaida talde osatu genituen 18-80 urte bitarteko lagunekin. Taldeak osatzeko hiru irizpide hartu genituen kontuan; haur zireneko etxeko hizkuntza eta adina. Etxeko hizkuntza euskara izan dutenekin 4 talde osatu genituen, 18-29 urte bitartekoak, 30-45, 46-60 eta 61-80 urte bitartekoak. Adin tarte berdinak errespetatuta beste lau talde osatu genituen etxeko hizkuntza gaztelania izan zuten lagunekin. 2 larunbat goizetan elkartu ginen eta aurretik taldean prestatutako gidoiari jarraituta ordu eta erdi- bi orduko saioa egin genuen talde bakoitzarekin. Maxixatzeneko kide bat egon zen talde bakoitzean eztabaida gidatzen.

16-18 urte bitarteko gazteei dagokionez, taldean prestatutako inkesta pasa genien eskola ordu batean.

Bai eztabaida taldeetan eta baita ikasleei pasatako inkestan ere, Txepetxen iritziz hizkuntza komunitatea osatzen duten hiru elementuei buruz galdetu genien: hiztuna, gizartea eta hizkuntza. Ondoren azalduko ditugun emaitzak parte hartzaileen aldetik gehien azpimarratuko kontuak dira; izan dira bestelako ideiak ere baina parte hartzaile batek edo birek bakarrik aipatu dituztenez, artikulua honetatik kanpo utzi ditugu, ez garrantzirik ez dutelako, tokirik ez daukagulako baizik.

EMAITZA ETA ONDORIOAK ATALEZ ATAL HIZTUNA

Ezagutza, erabilera eta motibazioaren inguruan antolatu genuen atal hau.

Ezagutzari dagokionez, Txepetxen proposamenean agertzen diren hiztun tipo guztiak daude azkoitiarren artean. Etxeko hizkuntza euskara izan duten 30 urtetik gorako gehienak A motako hiztunak dira. Etxean gaztelaniaz egin izan dutenen artean 30-45 urte bitarteko gehienak A motako hiztunak dira, kalean edo lanean ikasi dute. Gutxi dira B motako hiztunak. Lehen aipatu dugun moduan 45-80 urte bitartekoen artean (A) motako hiztunak dira eta bat edo beste dago (B) motako hiztuna dena. 16-29 urte bitarteko azkoitiarren kasuan guztiak dira hiztun osoak, eurek diotenez, behinik behin. Kopuruetara ekarrita azkoitiarren %31k bakarrik bukatu du hizkuntza ikasketa prozesua eta %61 ez da hiztun osoa euskaraz.

- *Nei euskeraz idatzi eo erderaz idatzi berdintzat.*
- *Erreztasun aldetik neire bai.*
- *Neire bai*
- *Nik euskeraz idaztet neuk aukeratzetelako. Baine ez tet aukeratzten euskeraz euskeraz badakitelako ta erderaz ez. (ET1)*

– Nik, egixe esan, idatziz erderaz hobeto sentitze naiz. Hitzetteakun ez, hitzetteakun aldrebeska (ET2)

– Zuek euskeraz erosuo sentitze zeate?

– Bai.

– Dudaik gabe.

– Nik euskeraz naixo.

(ET3)

– Gure denborakuk hoxe daukeu akats bat, neretzat, gu nola euskeraz hasi, euskeraz gauze hoxe danak eta etxine giro hortan bizi izen gea beti, ta irakurrirre bai, baine idazten ez, idazten ez, ta gero lotsa horreatikene bai, askotan ezteu, eztixou zea etten, geure artin tartin bai, ta txiki-txikittetiken idatzi deu, baine zeuk nola ette, nola hitzette zenun, era harta idatzi dana.

Ta oin beste erabatea nola dauden gauze hoxek, zemattekin etteko etzea auseritzen, eta beste gauze bat, nola txikitten erderaz ikisi genun materixe ta gauze hoxe danak, gure burun sartu zan erdera hori gauze askotan. (ET7)

– Baine nire sentimenduak adierazterakoan, derrigorrez erdarara joan behar izaten dut. Ez daukat errekurtsorik hori euskaraz egiteko. Zuk eta biok arratsalde bat berriketan pasatu, baina nik erdara erabiltzen ez badet, zuk ez duzu nire barruko zati bat ezagutuko. Horretarako erdera erabili beharko nuke. Hori da sentitzen dudana.

(ET4)

Erabilera. Ahal den guztietan euskaraz egiteko joera nagusi da adin talde guztietan, baita etxean gaztelaniaz bizi direnak ere. Euskara erabiltzen dute etxean eta lagunartean nagusiki. Pixkat gehixio galdetuta, detaileak edo egoera zehatzak planteatuta, ordea, hizkuntza jarrerarekin zein norbere gaitasunarekin lotutako hutsuneak azaltzen dira talde guztietan. *Bakoitza bere atalean aztertuko dugu.*

Motibazioa. Euskaraz zergatik egiten duten galdetuta euskaldunak garelako, betidanik horrela egin dugulako, geure hizkuntza delako, lanean behar dudalako, besterik egiten ez zelako, ... esan dute gehienek. Etxean gaztelaniaz bizi direnek inguruaren eragina, euskal munduarekiko lotura edo integrazteko bidea zela aipatu dute. Integrazioarena belaunaldi helduenek bizi izan dute, batez ere.

Oro har, jende gehienak aipatu du guk hitzun modura dugun ardura euskararen garapenean. Motibazio eta kontzientzia horrek ordea ibilbide motza egiten du, hizkuntza mendekotasunezko portaerak nagusi direlako adin talde guztietan. Euskaratik gaztelaniara salto egiteko arrazoien artean betikoak aipatu dira:

Euskara ez inposatzearen aldeko jarrera bereziki azpimarratu dute. Beharra sortzeko bidea hobesten da, derrigortasunak kontrako jarrera sortzeko bidea ekar dezakeelako. Belaunaldi zaharrenek aipatu dute hau, batez ere. Eurek gaztelaniarekin izan zuten esperientziarik ez dute nahi besteentzako, beraiek gaztelaniarekiko duten jarrera nolabait ezkorra sortu daitekeelako euskararekiko eta garbi dute hori ez zaigula komeni.

- Gaizki jokatzeko ari garen irudipena, errespetu falta.
 - *Gu gaztik ginelare, kuadrilen da, nahiku zan erdaldun bat etortzie, etziun inok inposatzen, baine geuk erderaz.*
 - *Oaindikene bai.*
 - *Batte inposau re. Edukazixo faltie dek, eta honeatiken danok erderaz. Hemen inposaketie eon dek.(ET7)*
- Elkar ezin ulertua. Besteak ez badaki komunikazioa eten egiten da, beraz, gaztelaniara jotzen da.
 - *Nik neuk erderaz eztaixenakin, ta derriorra baldima, derriorra baldima, bestela batez.*
 - *Nik normalin beti euskeraz; bazeukeat laun bat erdaldune dana, ta andrik esate zik, jo, mintza praktika einde etorri zea. Erderie ikitea, erderaz harekin, baine gainontzin. Hemen dakiunakin, herrixen behintzet.*
 - *Iguel lanin ai zeanin ta, harek ezpaldimaki euskeraz, ta derrior ber baldimazu haren zoeze, derrior erderaz hitzein berkoxozu. Baine bestela... (ET7)*
- Aurreiritziek era pisu handia dute: Azkoititik kanpo oso toki gutxitan egin daiteke euskaraz, atzerritarra bada seguru ez dakiela euskaraz.
 - *Nik uste dut beraiekin (etorkinekin) hitz egitera erderaz egiten dugula.*
 - *Con ellos hablamos erdera nosotros (ET6)*
- Ohituraz, biak euskaldunak izanda ere betidanik gaztelaniaz egin badute, inertziaz gaztelaniaz egitera jotzen da.
 - *Nik badauket bat koadrilen giro erdalduneko bat, (...) danok gea euskaldunek, eta harek dauke, giro erdaldunekue da, baina euskeraz ikisi du, euskeraz ondo itzeitteu; hala re, nola txiki-txikitatik guk Florian asko eitte gendun erderaz, euskaldunen artien e, nik beti hari erderaz eitte ixot, eta beak... nik badakit harek euskerie praktikatzen dula beste batzuketin, baina beti ertetzeit, zea, harekin, ertetzeit erderie... txikitetiken halaxe ohitu gentalako, eta esatek, e, geizki, joe, geure burui harrika ai gaittun, ta hori geuk failatzeiñau (ET3)*

Euskara ez inposatzearen aldeko jarrera bereziki azpimarratu dute. Beharra sortzeko bidea hobesten da, derrigortasunak kontrako jarrera sortzeko bidea ekar dezakeelako. Belaunaldi zaharrenek aipatu dute hau, batez ere. Eurek gaztelaniarekin izan zuten esperientziarik ez dute nahi besteentzako, beraiek gaztelaniarekiko duten jarrera nolabait ezkorra sortu daitekeelako euskararekiko eta garbi dute hori ez zaigula komeni.

Atal hau bukatzeko, bereziki aipatu nahi dugu, ez euskara ez gaztelania ez direla eskubide parametroetan neurtzen. Euskara-gaztelania auzia ez da eskubideen plazan irudikatzen, komunikazio, talde kohesio eta identitate parametroetan baizik.

GIZARTEA

I

Eztabaida talde guztietako kideak bat datoz Azkoitia herri euskalduna dela esaten. Guztiek diote euskara oso modu naturalean entzuten dela kalean, lantokietan eta eskolan,... Are nabarmenago dela esaten dute beste herri batzuekin konparatuta. Mikel Zalbidetik proposatutako definizioaren arabera Azkoitia euskararen arnagunea da. *Euskarazko arnagunea, demografi aldetik euskara “bere habian” sentitzen den bilgunea da, inork xaxatu edo eraso gabe “etxeko jaun” sentitzen den eremua.*

Galdera orokorrean planteatuta ez da pitzadurarik nabari, baina egoera eta ingurune zehatzei buruz galdetuta bestelako erantzunak uste baino sarriago agertzen dira.

Txepetxek eta Fishmanek hizkuntzek bete ditzaketan funtzioei buruzko eskema jarraitu genuen Azkoitian euskarak funtzio guztiak betetzen dituen eta zenbateraino betetzen zituen ikusteko.

IDENTITATE FUNTZIOA

30 urte bitarteko lagunen kasuan euskarak identitatea ematen dietela adierazi dute. Etxean gaztelaniaz bizi izan diren hainbat kasuan aukeratu egin dutela diote, berez ez zetorkien zerbaiten aldeko apustua egin dutela hainbat arrazoi medio: integratu beharra, nolabaiteko hurbiltasuna sentitzea euskaradun komunitatearekiko...

— *...azkenin, ba nik ama hizkuntzie erderie dauket, baino nik ikusi ja oin dala urte batzuk, ordun leno erderaz pentsatze non, ta ja eztakit, egun batetik bestea hasi nitzen euskeraz pentsatzen...(ET2)*

30 urtetik gorako azkoitiarren kasuan berriz, denetarik dago. Etxeko hizkuntza euskara izan dutenei nortasuna ematen die euskarak argi eta garbi, baina ez hizkuntzak bakarrik, baita gure ohitura zaharrek, herri kirolek... hizkuntza beraz, faktore bat gehiago da baina ez bakarra.

— *Normal, zeatik jate deu? Gosi daukeu, ta jan. Zeatik hitzette deu? (...)
Nola hitzeingo deu? Euskeraz! Euskaldunek gattuk eta. (ET5)*

30 urte bitarteko lagunen kasuan euskarak identitatea ematen dietela adierazi dute. Etxean gaztelaniaz bizi izan diren hainbat kasuan aukeratu egin dutela diote, berez ez zetorkien zerbaiten aldeko apustua egin dutela hainbat arrazoi medio: integratu beharra, nolabaiteko hurbiltasuna sentitzea euskaradun komunitatearekiko,...

Espainia aldetik etorritako aurreneko etorkinek eta euren seme-alabak ere euskaldun sentitzen dira, baina ez nahitaez euskaratik. Euskaraz ez jakin arren, bizimodua hemen egin izanak eta hemengo kultura eta ohiturekin lotura emozionala garatu dutenez, bertako sentitzen dira, euskaldun. Ohartzen dira hizkuntzak betetzen duen funtzioaz eta eurek duten gabeziak, baina euren nortasunagatik galdetuta, euskaldunak direla esango lukete.

— ...ba ni azkoitiarra naiz, eta ondorioz erabaki nuen euskarazko taldean sartzea. Identitate falta horrek markatu ninduen. Eskolan, erdaldunon artean ere bereizketak zeuden, extremeñoak, gallegoak,... eta ni ez nintzen identifikatzen neure inguruan zeuden beste erdaldunekin ere, ni ez naiz hauek bezalakoa... ez bata, eta ez bestea. Gustorago egoten nintzen euskaldunekin, nahiz eta batzuetan ez ulertu, erdaldunekin baino. Inoiz ez nengoen gustora eta zerbait egitea erabaki nuen. Ikasi egin nuen. (ET4)

Espainia aldetik etorritako aurreneko etorkinek eta euren seme-alabak ere euskaldun sentitzen dira, baina ez nahitaez euskaratik. Euskaraz ez jakin arren, bizimodua hemen egin izanak eta hemengo kultura eta ohiturekin lotura emozionala garatu dutenez, bertako sentitzen dira, euskaldun. Ohartzen dira hizkuntzak betetzen duen funtzioaz eta eurek duten gabeziak, baina euren nortasunagatik galdetuta, euskaldunak direla esango lukete.

— *Es que ya vives aquí, y te consideras de aquí.* (ET6)

— *Y cuando ya vives aquí, tú defiendes esto, y que no te hablen mal de esto.* (ET6)

FAMILIA FUNTZIOA. ETXEA ETA FAMILIARTEA, AUZOA ETA LAGUNARTE HURBILA

Adin tarte guztietan esan dute euskaraz egiten dutela etxean, lagunartean. Dena den, askok aitortu dute horretarako aukerarik dutenean barririk egiten dutela. Esate baterako, gurasoetako bat erdalduna baldin bada, erdaraz egiten dute harekin eta euskaraz etxeko besteekin gehienek, baina badira etxean beti gaztelaniaz egiten dutenak lagun batek edo birek ez dakitelako. Gurasoak erdaldunak badira erdaraz egiten dute haiekin baina joera nagusia da anai- arriben artean euskaraz egitea.

Azkoitia herri euskalduna dela iruditzen zaie guztiei baina gaztelania kalean tokia irabazten ari dela aipatu dute hainbatek. Haurrak, gazteak zein helduak entzun daitezke kalean gaztelaniaz.

Funtzioa hau ere euskaraz betetzen du nagusiki herrian, baina gaztelania ere badu tokirik.

— *Nik emaztearekin.*

— *Nik kuadrillane bai, ta umikin ta...*

— *Nik normalean kalean, lagunekin ta.*

(ET8)

— *Eske neretzat inderra hor dao, neretzat inderra dao koadriletan eta zea, giro hortan, oingue ez tet ezautzen, oingo, oin 18-20 urte dauzkebenetan baino gure generazixun eta, koadrilik inder asko eitteu. (ET3)*

— *Nere gizona euskalduna da, eta lanean eta umeekin eta euskaraz egiten du, baina nirekin erderaz. Harremanean ezinbestekoa da erderaz egitea, bestela ez litzateke sakona izango. Ezin da barroa allau... ezin gea osau. (ET4)*

— *Lagunekin, eskolan, lanin, anaxekin euskeraz ettet. Gurasukin erderaz. (ET2)*

— *...bai kontatzen diet guk euskeran zer egin dugun (euskaltegiko klaseari buruz ari da), baina euskeraz ez, eta uste dut euskeraz inoiz ez dugula hitz egingo. (ET6)*

LANEKO FUNTZIOA

Euskarak erdizka bakarrik betetzen du funtzioa hau. Eskola mundua zeharo euskaldundua dago herrian baina lan esparrura sartutakoan jendeak euskaraz egiteko era askotako zailtasunak daudela esaten du.

Faktore objektiboak aipatzen dira: hainbat lan burutzeko ez dago euskarazko tresnarik (excel, esaterako), hizkuntza teknikoa falta da... Ikergai dago benetan hizkuntza teknikoa falta den edo norberaren gaitasunak kamuts dagoen. Gure ikerketan parte hartu zutenen iritziz, hizkuntza bera da gabezia dituen, ez norbera, nahiz eta tarteka aitortzen den dokumentua bera bi hizkuntzetan baldin badago, lasaiago sentitzen direla gaztelaniakoa irakurrita, euskaraz dagoena batzuetan ulergaitza egien baitzaie. Gaztelaniara ezinbestean jotzen dutela diote, baina aldi berean euren gaitasun murrizta ere aitortzen dute. Ez genuke puntu honetan aurrera egiterik nahi ezagutzari buruz eman ditugun datuei beste buelta bat eman gabe. 16-29 urte bitarteko gazteak dira euskaraz hiztun oso Azkoitian, gaitasun eta motibazio handiena duten taldea, beraz. Eguneroko egoera arruntak mahai gainean jarrita ordea, ezagutza neurri bat artekoa dela dirudi, hiztun osoen kopurua benetan %31ra iristen den aztertu beharko litzateke.

— *Zemait kanpotan, kanpo teknikon ta, gaur eunin euskerik ondik hutsune haundixek dauzke, ondik, nik esateizut ni ibiltze naizela, makinekin da ibiltze naiz, ta mekanikan, mekanikan ondik euskerik hutsune haundixek dauzke. (ET1)*

— *Duela gutxi ikastaro batera joan nitzen beste bi euskaldun zaharrekin, haiek papera erderaz bete zuten, eta nik euskaraz. Zergatik ari zeate erderaz? Eta euskaraz idaztea zaila dela esan zidaten. (ET4)*

Azkoitia herri euskalduna dela iruditzen zaie guztiei baina gaztelania kalean tokia irabazten ari dela aipatu dute hainbatek. Haurrak, gazteak zein helduak entzun daitezke kalean gaztelaniaz.

Eskola mundua zeharo euskaldundua dago herrian baina lan esparrura sartutakoan jendeak euskaraz egiteko era askotako zailtasunak daudela esaten du.

Produkzioak, eta etekinek agintzen dute, kontuak serioagoak dira eta hor gaztelaniak erosoago sentiarazten diete. Lanarekin zuzenean loturarik ez duten momentuetan euskaraz egiten da (kafe orduan, iritsi berritan lanean hasi aurretik,...) baina lanerako ez du balio.

Ustez objektiboak diren arrazoi hauekin batera arrazoi subjektiboak ere aipatu dira. Eskola munduan euskaraz egiteko arazorik ez dagoela aipatu da, baina lanean bestelako kontuei ere erreparatu behar zaiela uste du hainbatek. Produkzioak, eta etekinek agintzen dute, kontuak serioagoak dira eta hor gaztelaniak erosoago sentiarazten diete. Lanarekin zuzenean loturarik ez duten momentuetan euskaraz egiten da (kafe orduan, iritsi berritan lanean hasi aurretik...) baina lanerako ez du balio.

— *Nei iruitze zat lanien ja, ber dezula ja, hiztegi espezifikoko bat, ber dituzula, eta geo zeinekin zauden etab., eta lanien ja oaindiken e mestizaje haindixe bihurtzea, mestizaje haundixe dao. Nei gertaze zat hizkuntza tekniko baten falta bat, nik somatset, ordun errezo eittet, ni Florian ibilitekue naiz, eztaikit hortiken datorren, baina nik sentitset falta bat, gero axaleko gauzek, ba esan nahi dizut, ba, bazkaltzen eo lagunartin, ba, hor lehenengo hitze euskeri mantetzen deu, eta, topatzezu zure zea, euskerik eitteu zeure taldie osatzie, ta mantentzezu, baine laneko gaixek, laneko bilerak, laneko zeak, nik normalien erderaz. (ET3)*

Gutxi batzuk dira lanean euskara erabiltzen dutela diotenak.

FUNTZIO LOKALA. ERLIJO MUNDUA, AISIA ETA KIROLA

Funtzio lokalean euskararen presentzia sendoagoa da batzuetan, baina atal askotan hutsuneak daude.

Udalak 2005ean egindako ikerketa baten arabera, herriko aisialdi talde gehienek euskaraz funtzionatzen dute ahozkoan, baina gaztelaniaz idatzian. Jende gaztea dabilen taldeetan ere gaztelania asko erabiltzen da idatzizkoan.

Erljio kontuak ez daude oso argi. Garai batean elizkizunak eta do-trina euskaraz egiten zirela ematen du eta gerra ondoren hasi zela bi hizkuntzak erabiltzen. Dena den, ez dago argi. Gaur egun euskaraz funtzionatzen da, elizkizunak, haurrentzako kristau ikasbidea, baina badira gaztelania hutsean egiten diren elizkizunak ere.

Aisialdiari dagokionez, talde gehienetan euskara da komunikazio hizkuntza. Sare sozialen atalean, euskara da esparru handiena hartzen duena, baina gaztelaniak ere dexenteko esparrua betetzen du. 16-18 urte bitarteko gazteek gehien erabiltzen duten sarea Tuenti da, %90k erabiltzen du. Horietatik %75ak erabiltzen du euskaraz eta %15k gaztelaniaz. Guztiak D ereduaren eskolatu direla eta ahal duten guztietan eus-

karaz egiteko joera dutela aitortuta, kontuan hartzekoa da %15eko kopuru hori. Interesgarria litzateke jakitea zergatik aukeratu duten gaztelania. Facebook kasua bitxia da oso. %41ek erabiltzen du eta horietatik %31k bakarrik erabiltzen du euskaraz. Sakonago ikertzeko kontua, inondik ere.

FUNTZIO NAZIONALA. ADMINISTRAZIOA, EKONOMIA SAREAK, AGINTARITZA ETA IKERKETA

Euskararen presentzia nabarmen jaisten da funtzio honi dagokionez. Nolanahi ere, gero benetan gertatzen dena oso bestelako kontua da. Eztabaida taldeetako kideek Udalarekiko harremanetan euskara darabilte aipatu dute, baina administrazio organo zentraletatik eratorritako hainbat gunetan hutsuneak nabari dira; Osakidetzan eta Ertzaintzan nagusiki.

- *Udaletxine idatzi, euskeraz idaztezu.*(ET7)
- *Pediatric eon huan ixte bi urte, hemen pediatrika gabe eon gitxian euskeraz ikitea jun tzalako, eta gaur egun ere, pediatria jun, perfile atea bertzein euskerakue, atea zian, liberaute eon huan ikasten, ta gaur dek hik hitzein ta lelengo hitze erderaz.* (ET5)

Udaleko teknikarien artean, %95etik gorakoa da euskaldunen kopurua, eta hala egin dezakezu beraiekin ahoz bederen. Idatzizko esparruan, arazo gehiago dago ondo moldatzen den teknikaririk bilatzeko arlo guztietan. Hala ere, esan beharra dago, herritarrean artean ere asko dagoela oraindik idatzizko kontuak gaztelaniaz egitea nahiago duenik, euskaraz egiteko modua izanda ere.

KULTURA ETA ZIBILIZAZIO FUNTZIOA. INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDE MUNDUA

Txepetxek dioenez, azkeneko bi funtzioak, kultura eta zibilizazio funtzioa eta nazioarteko hizkuntza funtzioa, bigarren mailako ikasketan lortzen dira.

Atal honetarako hiru kontu aztertu ditugu. Alde batetik, hizkuntza baten zibilizazio funtzioa eta, bereziki, euskarak Azkoitian funtzio hori betetzen duen edo ez aztertu dugu, eztabaida taldeetan esandakoan oinarrituta.

Beste alde batetik, komunikabideak aztertu ditugu. Horretarako, Batxilergoko ikasleen inkestan, normalean kontsumitzen dituzten irri eta egunkarien inguruan eman dituzten erantzunak jorratu ditugu.

Amaitzeko, kultura produktuen ezagutza eta kontsumoari beste atal bat eskaini diogu. Eztabaida taldeetan esandakoan oinarrituz, he-

Eztabaida taldeetako kideek Udalarekiko harremanetan euskara darabilte aipatu dute, baina administrazio organo zentraletatik eratorritako hainbat gunetan hutsuneak nabari dira; Osakidetzan eta Ertzaintzan nagusiki.

**Esan beharra
dago,
herritarrean
artean ere asko
dagoela oraindik
idatzizko
kontuak
gaztelaniaz egitea
nahiago duenik,
euskaraz egiteko
modua izanda
ere.**

rritarrek euskal kultura, sortzaileak eta sortzaileen lana nola ikusten dituzten aztertu nahi izan dugu.

Hizkuntza bat kultura edo **zibilizazio hizkuntza** izan dadin, Txepetxen arabera, hizkuntza komunitate bateko kideek beste hizkuntza bat ikasten duten aldi berean, beharrezkoa da trukean hizkuntza horretako hiztunek beraien hizkuntza ikasten hasi denaren lehen hizkuntza ikastea. Hau da, azkoitiarrok gaztelania ikasten dugun hein berean, gaztelaniadunek euskara ikastea izango litzateke kontua. Datuak aztertzean, aipatu dugu 2000. urtetik aurrera Azkoitiko lehen hezkuntzako ikastetxe guztietan D ereduan irakasten dela. Ondorengo adierazpenetan ere ikusi dugu, gaur egun Azkoitiko ikastetxeetan ikasten duten haur guztiek bereganatzen dutela euskara. Baina zer gertatu zen lehenago?

— Azkoittixen gertau da fenomeno bat, jende bat badao, nere ustez, gure jenerazixue ta pixket goragokue dana, euskerie kalin ikisi duna, etxin gurasuek eta erdaldunek, eskola erderaz, eta kalin ikisi debenak, eta ni kanpoa jute naiz, eta hori kontatzet, eta ez tibe sinisten, eta gero etortze naiz, eta 100-200 bat kontatzeitut, oin hori igual aldau einda. (ET3)

— Nik kalean ikasi nuen, eta orain kanpoan egon naizenean irratiarekin eta irakurtzen eta... (ET5)

— Bai, bai, nik bai behintzet, nik kalin ikisi nun.

— Hemen gehixenok, bate dudaik ez tauket.

(ET6)

— Nik tallerrin ikisi nun, euskeraz eitte zeбен da. (ET6)

— Bazeudek adibidik, gu eskolan ibili ginenin, (herritar baten izena) ta, (familia baten gaitzizena) esatexobenak, haxek gurekin hasi ittuan, ta eskolan zoragarri ikixi ziabeen, harek ta bere anai danak.

— Bai, bai, hori bai.

— Batte Bastarririkaldine (Azkoitiko erdigunean dagoen auzo bat) ikiste ziñebenan.

— Bai, giruk ettein dana, giruek.

(ET7)

— Neri pasau zat gainea lanpostue, basarritarrak ondun portunau zan, ta derrior zeoze ikisi ber, gauze haundik ez, baine zeoze bai. Langilin artin, jende gutxi gainea, kanteran zan, blokerixen ta, basarritarrakin ta euskeraz. Hori en el año cincuentaishete. Pentsau zemat urte din... (ET8)

— Kalin ikisiko genun, porke aber nun! Ikastolaik eta eze etzeun. (ET8)

— Hemen kanpotarrak gaizki pasako zeбен, gure gurasuk eta e? Porke handik etorri, ta hitzein etzeben etten. Gure amak behintzet beti esan tzun, urtebetin zemat near ein tzun plaza jute zanin.

— *Etzulako euskeraz entenditzen?*

— *Klaro! Basarritarrak euskeraz ette zixoben eta etzun ezerre entenditzen, ta zemat aldiz konprie etteke atzea etxea.*

(ET8)

— *Nik, eske nik kanpokukin konparaute, esateizut hemen dauden kasuk, hemen eta hanguk daude, etxien euskeraik ez, eskolan euskeraik ez, eta kalin ikasi debenak, eta hori ikisteko, kontestu bat emane in ber da, batematek hitze eman behar dixobela.* (ET3)

Badirudi garai batean euskarak Azkoitian kultura eta zibilizazio funtzioa bete zituela, eta etorri berriek euskara ikasi beharra sentitu zutela, eta inguruak eta lagun arte hurbilak lagunduta ikasi ere egin zutela. Hala ere, ezagutza datuetara itzulita, herritarren %10 erdal hiztuna da gaur egun, funtzio horretan atzera egin dugu urte gutxitan. Garai batean kalean euskalduntzen zen jendea, berez, inguruak berak eskatzen zuelako baina gaur egun ez da horrelako kasurik ezagutzen. Euskaraz jakin gabe ere erraz bizi daiteke Azkoitian.

— *Erderaz ederki moldau leikezu. Euskerie ez jakinde lasai bizi leikezu hemen.*

— *Porke azkenin euskeraz eztakixenai erderaz ette xozu.* (ET1)

— *Euskerin aurretiken erderaz ikixikoula, hor erderikin manejuu, bizi eingou, Azkoitti batin erderie jakinde bizi ein laike.* (ET2)

— *Integratze kontu hori lengun hemen, zea eztakit nungu dan, gailegue da, ta Alemanin bost urte ein tzittun lanin, ta gero etorri berra izen tzun, (...) gero oin hemen geraute dao hota hemezazpi urtin eo, ta alemanez entenditze zala, ta hemen euskeraz ez. Beak esate zun beharrik ez. Beharrik etzula.* (ET7)

— *Erderaz trankil egiten da.* (ET8)

Ildo berean bestelako ñabarduretara jauzi eginez, kultura eta zibilizazio funtzioaren barruan euskarara hurbildu dierenetatik aparte, Fishmanek aipatzen duen informazio eta zabalkundearen mundua ere sartuko litzateke. Puntu honetan aztertu beharrekoa izango da zein diren herritarren erreferentzia kulturalak, irakurri eta entzuten ditugun egunkari, liburu, irrati eta bestelakoak. Horiek jorratuko ditugu hurrengo orrietan.

Komunikabideen atala aztertuta, datuak kezkatzeko modukoak dira. Eztabaida taldeetako kide gehienek Euskadi Irratita entzuten dute nagusiki. Ikasleek Gaztea entzuten duten gehien. Irratiari dagokionez beraz, euskarazkoak aukeratze ditugu batez ere, nahiz eta gaztelania-koak ere entzun, baina askoz gutxiago.

Egunkari eta aldizkarietako dagokionean gaztelaniako produktuak dira nagusi.

**Telebistari
buruzko datuak
penagarriak dira.
Euskarazko
kateak hain gutxi
izanik, denek
esaten dute
gaztelaniakoetara
jotzen dutela.**

Egunkari eta aldizkarietako dagokionean gaztelaniako produktuak dira nagusi. Batek edo bestek aipatu du Berria irakurtzen duela. Jende gehienak aipatu du Maxixatzen herri astekaria irakurtzen zuela, baina 2009az geroztik argitaratzeari utzi zitzaion eta berez, murrizta omen den aukera are murriztagoa da ordutik.

Telebistari buruzko datuak penagarriak dira. Euskarazko kateak hain gutxi izanik, denek esaten dute gaztelaniakoetara jotzen dutela.

Hiru komunikabide moten artean, beraz, bakarrean aukeratzen ditugu euskarazko produktuak.

Kultur produktuen ezagutza eta kontsumoa. Arazoa ikerketagaia mugatetik bertatik dator; oro har ikerketan parte hartu duten guztiek esan dute euskaraz sortzen dena euskal kultura dela. Hizkuntzaz gain, gehienak ados daude hitzekoa ez den kultura tradizionala ere euskal kulturatzat aitortzerakoan: herri kirolak, dantza, trikitixa...

– *Nik ustet euskeraz etteana. Neretzat bai behintzet.*

Neretzate bai.

(ET1)

– *Euskal Herri mailan, eztaikit. Ohiturek, hizkuntza...*

– *Hizkuntzie, folklorie.. dana azkenin.*

– *Ta berdin du ze hizkuntzatan ettean hemen ette baldima? (dinamizatzaila)*

– *Ez.*

– *Nola, nola?*

– *Euskerin...*

– *Hemengo zea, euskeraz ettie, euskal kultura hemen etteana izengoa, ez?*

(ET2)

– *Nik uste guretzat izan dala beti, hori dantzie, bertuk eta... folklore hori hola...*

– *Tradizixue, hor betiko tradizixue ta hori dana oso lotute zion euskerikin.*

(ET3)

– *Gure hizkuntza erabiliz ateatzean ba hori, ez? Kultur lehiaketa bat, aktibidade, bai zea, bai idazlanak, artea... dana, dana.*

– *Etzetako ohiturak.*

(ET5)

– *Neretzat euskeraz egiten dana.*

– *Bai, bai, bai (denak).*

(ET6)

- Euskal kultura, idi probak eta hoxek, harri jasotzei ta, sokatirre ta.
- Hori dana.
- Musikie ta.
- Bestalde, jute mahaiz bertsolaxek...
- Hizkuntzie beorire bai.
- Dana.
- Hizkuntzie, folklorie. Dana, dana, hizkuntza, folklore, deporte, historia, dana, dana. Euskaldun izateko...
- Euskal kulturie da euskeraz etteana, euskeraz ettebena, o euskal artistak eta, beste hizkuntza baten ettebena.
- Eo ta oin topatzetoban leizezulotan topau, leizezulotan topatzetoban gauze hoxek al die, ala?
- Dana, danak osatzeula euskerie. Euskaldunon gaur egunera eman deun prozesu horretan eman deun historia, era, eta sortu dittogun zea hau e danak, sortu dittugun ba folklorea, behar bada berezia, euki deun historia, berezia eo ez berezia, euki dittugun moduak, euki dittugun zeak, dana e, dana. Neretzat danak osatzen din.
- Herri bat osatzen dun danak.

(ET7)

– Nik ustet, kultura mundun moitze dan dana, dana dala euskal kulturikin zerikusixe daukena, danak, e? Len esan deun zea, Barandiaranek esandako definizixo hori. Kulturie hori bada, herri batek eman dizkion arazoei, o izan dituen arazoei eman dien erantzun multzoak osatzen badu kultura, hau da, beste esaera bat, gaur garena gara, aurrekuk izan direnak izan dirrelako, ez? Ordun, hori hola baldin bada, herrixen etteien musike taldiek, dantza taldiek, koruk, proba taldiek, deporte ruralin mugitzen dienak, literatura mundun eta informazio mundun mugitzen dana, nik ustet dana hor sartzeala kulturian, herri barruen. (ET7)

– Dantza, kantuak, liburuak, idazleak...

– Para mi los cantos son muy sentimentales, no hace falta entenderlos. El canto vasco suele ser muy sentimental, o sea desgarrador, muy sentimental.

– Hemengo ohiturekin.

– Hombre, la cultura de aqui, cosas de antes...

– Aldaute dao asko.

(ET8)

Batxilergoko ikasleen inkestetan ere erantzunek joera berdina dute. Gehienek (%80) euskal kultura euskaraz egindakoa dela esan dute. “Euskal musika Euskal Herrian edozein hizkuntzatan egiten den musika da” baieztapenak zalantza handiagoak eragin ditu. Inkestatuen gehiengoak

ez da baieztapenarekin ados agertu. %42k ordea, zalantzak ditu. Hortaz, ez dago erabateko erantzunik.

Horrenbestean, garbi dago euskal kultura zer den, baina ez dago hain argi zer ez den. Pixkat zirikatuta, hizkuntzaz kanpoko faktoreek ere euskal kultura osatu dezaketela aipatu dute talde guztietan. Faktoreen artean honako hauek dira aipatuena:

- Sortzailea Euskal Herrian jaiotakoa den edo ez. Hemen jaiotakoa bada euskal kultura izan daiteke, eta hemen jaioa ez bada, ez da euskal kultura izango, euskaraz egiten badu ere.

- *Bai, bai, pero que es complicado, eh, porque yo digo euskalduna ez, euskalduna el que hable euskera, baina beste aldetik, ni euskalduna naiz, hemen jaiotakoa naiz, Bilbon, nire gurasoak, aiton amonak, hemen jaiotakoak dira, eta ordun euskalduna naiz, nahiz eta euskera ez jakin, baina nik idazten badut ez da kultura euskalduna? Hori da, kasu horretan zer?* (ET5)

- *Lehendik datorrena segurua daukeu, oingue daukeu mezkla bat, ordun ja eztaikiu nun sartu, baino jatorritik daukedeun hori errespetau eitte deu.*

- *Ikusten badeu bertsolai bat bertsu kantatzen, guk hori euskal kultura bezela hartuko deu, baina andaluz bat etorri, ta haure hastemazaku bertsu kantatzen, haure ezteu euskal kultura bezela hartuko.*

(ET4)

Dena den, zalantzak ere sortzen ditu gai honek:

- *Eta erderaz idazten dun bilbotar bat, por ejemplo. Bilbon jaio da persona bat, euskaraz ikasi ez tuna, idazlea da, eta erderaz idazten du. (gidaria)*

- *Ez ta berdine.*

- *Zure ustez, ez da berdine? (gidaria)*

- *Ez, ez.*

- *Euskal kultura ez litzake izango? (gidaria)*

- *Ez, ez, hainbeste ez behintzet.*

- *Hainbeste ez? (gidaria)*

- *Toti Martínez de Lezea zer izengo litzeke?*

- *Euskaldune bai, baine.*

- *Euskararen bueltan dabilen eztabaida da, eh, horregatik.*

- *Bestaldea, euskaraz egiten den liburu bat, Espainia barrun kultura espainola izengo litzeke? Bernardo Atxaga kultura espainola da, eo...? (gidaria)*

- *Ba berdine da, euskaraz eitten dan liburu bat, kanpun no será lo mismo.*

— Itzuli ein ber dezu, han eztakibelako euskaraz, hemen, en cambio, erderaz ettemabe liburu bat, ba errezo letze zu.

— Eso no se considera como cultura vasca, aunque el escritor sea vasco y todo eso. El hecho de que se escriba en castellano, para mí ya es...

(ET6)

• Sortzen den gaia bera: literatura bai, kantagintza bai, baina rapa oraindik ez, nahiz eta euskaraz egin.

— Es como uno que cante soleares con guitarra española o cante jondo en euskera, no sería un cantante vasco. (ET6)

— Baino oin modan jarri den, adibidez, rapeatzie, bertsoan rapeatzie jarri dek modan, hori? (gidaria)

— Hori igual oindik ez, geruo igual, baine seitun ez.

— Baine hori balorau ein ber dezu.

— Ostra bere merittue bazauken, igual ezten izengo e baino.

(ET4)

— Eske neetzat, hizkuntzie baiño gehixo den musika klasie eo hola, ez.

(ET3)

Gaiak Euskal Herriarekin loturarik duen edo ez: Euskal Herriko kontuei buruz ari bada, euskal kulturaren barruan sartuko da, nahiz eta gaztelaniaz egin. Aipatzekoa da gaztelaniari aitortzen zaiola euskal izaera hori, baina ez beste hizkuntzei, euskal gaiei buruz ari bada ere.

— Erderaz idazteben autore batzuk badaude, ta euskal kultura badala. Neretzako bada. (ET5)

— Koldo Mitxelena montau zanién, bi eo hiru autore bazeuden, bat Baroja, etzekiten ze lekutan jarri.

— Zuek ze lekutan jarriko zenuten?

— Nik euskal kultura. Begiak itxita baine.

— Bai, erderan idatzi baine hemengo kontuk esatettuna. Ta bittersin idatzi leike euskeraz nobela bat Ameriketako kontukin.

— Eta frantsesez idatzitako Pier Loiti bat da, batzuk badaude, euskal nortasune, ta hemengo hego haize ta hayek.

— Bai, inbestigazixue hemengo...

— Bai ta ein deben bezela, deskribatze ben bezela inok eztittula euskeraz ein, ta hayek ein debe. Erabili debe bai frantsesa ta Barojak erderie.

(ET5)

— Ez takit euskerikin bakarrik lotzean, badaude autoriek euskera hizkuntzie ez ibili baino, segun zertako euskeri ez, baina ezta hemen aitzealako bakarrik,

Aipatzekoa da euskal mundu tradizionalari aitortzen zaion garrantzia. Belaunaldi gazte zein helduek garbi ikusten dute hori euskal kultura dela. Begirada nostalgikoz aipatzen da mundu tradizionala, garai batekoa, galzorian dagoen euskaldunon iragana bezala.

Euskaraz egiteari garrantzi handia eman zaion bezala, gure aurrekoek egindakoa zabaldu eta jakinarazteari ez zaio behar beste erreparatu. Nolabait, jatorrizko euskal kulturaren transmisioan etena egon da.

hemen eittealako bakarrik euskal kultura, baina euskera gabe ere ein leike, ordun euskera gabe eitteen ekintza hori re izan laike, euskeraz ein leikezu bertakue eztan gauze bat, eta hemengo gauzie ein leikezu beste hizkuntza baten, eske ez da euskal kultura. (ET3)

Aipatzekoa da, halaber, euskal mundu tradizionalari aitortzen zaion garrantzia. Belaunaldi gazte zein helduek garbi ikusten dute hori euskal kultura dela. Begirada nostalgikoz aipatzen da mundu tradizionala, garai batekoa, galzorian dagoen euskaldunon iragana bezala. Gurea da, baina ez dugu parte hartzen. Gurea da, baina gu gabe. Oro har, min ematen du mundu tradizionala galtzen ikusteak, eta mundu hori belaunaldi berriengana ez dela transmititu sentitzen da. Euskaraz egiteari garrantzi handia eman zaion bezala, gure aurrekoek egindakoa zabaldu eta jakinarazteari ez zaio behar beste erreparatu. Nolabait, jatorrizko euskal kulturaren transmisioan etena egon da.

— Keba, aqui solamente... Yo creo que aqui, personalmente, en mi opinion, que le dan mucha importancia al hablar en vasco, solamente, no importa lo que se haya hecho luego. O sea, ze ein dan, hemengo jendik ze ein dun, nola erten dun, ta horri etzako hainbeste, bakarriken euskeraz ettiei. Lengo gurasuk ze ein tzeben, ta nola irten tzeben, ta hori... (ET8)

— Nei iruitze zat, ja galdu, galtzen ai geala hemengo gure arbasun gauze asko galtzen ai gea. Nik faltan botatzettut, ba oin ja plazan, ba aixkora jokuk eta holakuk eoteanin, ta jendeik eztezu ikusten, eo harri jasotzen, sokamuturrin, holako, hemengo gauzek dinak ezti ikusten, eo dantza talde bat, euskal dantza talde bat daonin, hoingo jendie bost inporta zako, ta errezo jungo zea eztakit ze etorri dala, kanpoko bat, nik eztakit ze, monopatini eztaikit ze txiribuelta, eztakit ze ikustea, atraktibuo iruitze zaku hemengo benetako ohitturek baino, nei hori iriutze zat, gaur eungo gaztik eztula hainbeste...

— Iguel hamendik urte batzuta hori izengoa euskal kulturie.

— Eske globalizazixue ta aukera haundixe dao ta.

— Nei adibidez axkolaxek, harrijasotzailik, sekule eztibe...

— Ni beti holako zeak eon dizenin, attekin jaxetan toki daneta jun izen naiz ta... holako ohitturek, trikitalaxek ta holako gauzak, nei lepo gustatze zatxit.

— Galdu ingoie, holako gauzek galdu ingoie, ta nei kriston penie emateit. Baserriko giro hori dana galtzik kriston penie emateit. Iruitze zat etxez inguraute gaudela, ta hemengo ingurue oso, oso zatartzen ai da, Euskal Herrixe zatartzen ai da, hemen ingurue behintzet. Nere iritzixe da, e?

(ET1)

Kultur merkatuak Azkoitian zenbaterainoko eragina duen jakiteko, kultura sortzaileei buruz galdetu genien ikasleei. Euskal produktuak gazteengana iristen diren edo, SORguneak ikertegiak egindako ikerketak dioen moduan, transmisio katea etenda dagoen jakin nahi genuen.

Abeslari, musika talde, bertsolari eta idazleak jarri genizkien zerrrendan. Garai batekoak eta gaur egungoak, eskolako curriculumean azaltzen direnak zein bestelakoak.

Egia esan, benetan esanguratsuak dira inkestetatik atera ditugun emaitzak.

Bertako eta atzerriko idazle, liburu eta webguneak ezagutzen al dituzten galdetzean, euskaldunen artean ezagunenak Bernardo Atxaga, Lizardi, Bizenta Mogel, *Lingua Vasconum Primitiae*, *Ortzadarra Sutan*, *Uztarrria* eta *Obabakoak* dira.

Aldiz, ikasle gehienek ez dituzte ezagutzen Eider Rodrigez, Zuzeu, erabili.com, Sustatu eta Kirmen Uribe.

Datu horiek esku artean hartuta, bizpahiru ondorio atera daitezke:

- Ezagutzen diren euskal sortzaileak eskolan lantzen dira, eskolako jardueratik kanpo geratzen direnak ez dira gazteengana iristen. Ortzadarra sutan eskolan irakurtzen dute, baina Eider Rodriguezen lanak lekurik ez duenez, ez zaie iristen.
- Euskarazko webguneetan ere ez dago ezagutza handirik. Azpeitiko *Uztarrria* ezagutzen dute, batez ere, baina hori ere erdiak pasatxok bakarrik. Azpeitiko euskara patronatuaren *erabili.com* webgunea ezezaguna zaie oso. Euskal Herri mailako gaiak lantzen dituzten atariak zeharo arrotz egiten zaizkie. Interneten egunero sartzen den belaunaldikoak izanda, kontuan hartzekoa da euskarazko webak hain gutxi ezagutzea. Hortaz, ondorioa izan daiteke sarean dabiltzanean batez ere gaztelania edo beste hizkuntza bat darabiltela. Aurrerago ikusiko dugun bezala, sare sozialetan euskaraz aritzen dira nagusiki, baina informazioa ez dute euskarazko medioetatik jasotzen.

Abeslari eta sortzaileen artean ezagunenak Mikel Laboa, Maialen Lujanbio, Oskorri, Anari eta Zea Mays dira.

Ezagutzen ez dituztenen artean, Jotakie eta Aldexok, herriko talde berri bat, daude. Lehenengoa garai bateko herriko taldea da, eta bestea gaur egungoa. Anari gehiengoak ezagutzen badu ere, herriko sortzaileak gutxi ezagutzen ditugula adierazten du datuak. Horrek esan nahi du, herrian bertan belaunaldi desberdinetako sortzaileek egindako lanaren

***Euskal kultura
eskolaren bidez
transmititzen da,
batez ere, inguru
formalean, beraz.***

***Azkoitiko kultura
kontsumoa erdal
sortzaileek
elikutzen dute
nagusiki.***

**Euskarazko
sorkuntza ez
dago
etorkizuneko
euskal
komunitatearen
iruditeria
kolektiboaren
erdigunean.**

**SORguneak
ikertegiak
ondorioztatu
bezala,
euskarazko
kulturgintzari
dagokionez,
kultura
transmisio eta
hedapen
sozialaren katea
etenda dago
erabat.**

transmisioa etenda dagoela, eta, horrenbestez, transmisio bideak ere bai. Herrian sortzaileak izan badira, eta izan dira lehenago ere, baina ez da bide jarraia izan, jendeak ez du aurrekoen lana ezagutzen. Unean unekoa ezagutzen da, batez ere.

Jasotako guztia kontuan hartuta, daturik aipagarrienak atzerriko sortzaileen atalean atera zaizkigu.

Ikasle gehienek ezagutzen dituzte atzerriko idazle, liburu, abeslari edo taldeak. Gazteen erreferente kulturalak atzerritarrak dira nabarmen. Euskal sortzaileen atalean bat edo beste ezagutzen dute %90etik gorako kopuruan, baina atzerriko sortzaileei dagokienean, ezagutza hortik gora dago gehienetan.

Egiari zor, datuok esanguratsuak bezain kezkarriak ere badirela esango genuke, ondorioak ere kezkarriak direlako.

1. Euskal kultura eskolaren bidez transmititzen da, batez ere, inguru formalean, beraz.
2. Azkoitiko kultura kontsumoa erdal sortzaileek elikatzen dute nagusiki. Batzuk eskolaren bidez iristen zaizkie, baina asko aisialdi merkatuan dagoen eskaintzatik edo eurek egindako haututik jasotzen dituzte. Horrenbestean, kultur erreferenteak atzerritik datoz, batez ere.
3. Euskarazko sorkuntza ez dago etorkizuneko euskal komunitatearen iruditeria kolektiboaren erdigunean, euskara ez dago nukleo sinbolikoaren erdigunean.
4. SORguneak ikertegiak ondorioztatu bezala, euskarazko kulturgintzari dagokionez, kultura transmisio eta hedapen sozialaren katea etenda dago erabat.

Belaunaldi gazteenetako kideak bat datoz adierazterakoan euskal musikarik ez dela entzuten tabernetan, eta atzerritik datorren jasarekin, zaila dela euskarazko produktuetan fijatzea. Garai batean baino aukera zabalagoa egonda ere, norberak bereziki bilatu behar du euskal musika, ez zaigu berez etortzen. Hala ere, aipatu beharra dago ezagutu ezagutzen dutela (hainbat kulturgileren izenak agertu dira eztabaidan zehar) eta, ezaugarri estetikoek baino areago, sortzen dieten lotura emozionala azpimarratu dutela. Belaunaldi zaharrenekoek ere aipatzen dute lotura emozionala, eta, batez ere, euren garaian musika, kontzertuak intentsitate handiz bizi zituztela azpimarratu dute.

- Benito beori.
 - Benito Lertxundi?
 - Bai.
 - Nei Ruper Ordorika gustatze zat.
- (ET2)

– Neri bertsolariak asko gustatzen zaizkit. Errez botatzen dituzte sentimenduak... eta hori gustatzen zait. Barre egiten dut, emozionatu egiten naiz... Pena ematen dit erdaldunek hori ezin bizi izatea...

– Bertsolaritza da gauza bat oso barrura sartzen dena... dana, pena, poza, politika... dana, hitz gutxikin, eta inorrek sartu gabe... (ET4)

– Bai. *A mí me encanta mucho la música vasca.*

– Xabier Lete, Benito lertxundi, Mikel Laboa, *sí me gustan mucho.*

– Bastarrikaldeko festatan guk ekarri ginean Benito hara.

– *Y si estás fuera, y oyes música de aquí, oyyyyy que ilusión. Sí, sí, te emociona mucho.* (ET6)

Oro har, jendeak badaki euskarazko kultur produkzioak tokia galdu duela kalean, baina ez daki zergatik gertatu den, nola iritsi garen egoera horretara, edo ezta horri buelta emateko moduak izan badirenik ere.

HIZKUNTZA. EUSKARA

I

Garai batean ez bezala hizkuntza prestijioduna da egun euskara. Jendeak baloratu egiten du, maite du eta eutsi nahi dio euskarari. Beste hizkuntzak bezala edozertarako balio duela esan dute gehienek, nahiz eta gero datuak erakutsi lan mundurako, esaterako jendeak oraindik gatzelania aukeratzen duela arrazoi bat edo beste dela ere.

Batuarekin harreman gazi-gozoa dagukagu. Jendeak badaki euskara batuak funtzio garrantzitsua bete duela euskararen iraupen eta hedapenean, baina oraindik zaila egiten zaiela aitortzen dute euskaraz alfabetatu ez diren askok, eta hori are nabarmenago eta mingariago egiten zaie, haurrak eskolatik iristean etxeko lanetan laguntzeko arazoak dituztelako edo betidanik erabili izan ditugun hitzak galtzen ari direla ikusita.

Euskaltegian ikasi dutenak aldiz, kexu dira batuak ez dielako kalerako balio. Tarte handiegia dago kaleko hizkera eta batuaren artean, eta horrek zaildu egiten die erabiltzen hastea.

Herriko hizkerak sentimendu kontrajarriak sortzen ditu. Hizkera zabarra, zaila dela diote hainbatek, baina aldi berean min ematen die

**Batuarekin
harreman gazi-
gozoa dagukagu.
Jendeak badaki
euskara batuak
funtzio
garrantzitsua
bete duela
euskararen
iraupen eta
hedapenean,
baina oraindik
zaila egiten
zaiela aitortzen
dute euskaraz
alfabetatu ez
diren askok, eta
hori are
nabarmenago eta
mingariago
egiten zaie,
haurrak
eskolatik iristean
etxeko lanetan
laguntzeko
arazoak
dituztelako edo
betidanik erabili
izan ditugun
hitzak galtzen ari
direla ikusita.**

***Herriko hizkerak
sentimendu
kontrajarriak
sortzen ditu.
Hizkera zabarra,
zaila dela diote
hainbatek, baina
aldi berean min
ematen die
hainbat hitz, eta
esamolde nola
galtzen ari diren
ikusteak. Horien
artean hitanoa.***

***Arnasgunea ote
garen? Ziurrenik
bai, baina ez
hainbatetan
deskribatu duten
euskararen
arkadia
orbangabea.
Gurean ere erro
sakoneko
arazoak izan
badira.***

hainbat hitz, eta esamolde nola galtzen ari diren ikusteak. Horien artean hitanoa. Garai batean oso errotua zegoen hizketa moldea galtzen ari da. Etxean gaztelania jaso zutenen artean ez da erabiltzen, eta euskara jaso zutenen artean mutilen artekoa da egiten den apurra baina hori ere gainbehera doa. Eta pena ematen digu. Gazteek aipatzen dute gehiago erabili nahiko luketela baina zaila egiten zaiela eta deseroso sentitzen direla. Transmisio katea erabat etenda egon gabe ere, zaila ikusten da hitanoari eustea etorkizunean.

AZKENBURUKOAK

I
Azkoitian euskaraz beste herri askotan baino errazago bizi badaiteke ere, herri bezala (administrazioa, hiztunak, elkarteak...) orain arte egin duguna baino ariketa sakonagoa egin beharko genuke hizkuntza kontuak ahotan hartzen ditugunero.

Egoera "ona" izanik ere asko dira puntu ahulak. Nukleo sinbolikoa ahula da oso. Hitzun osoak gutxiengo gara eta ikusteko dago benetan, ustez hitzun oso garenak hala garen edo ez. Mendeko hizkuntz portae-rak nagusi dira belaunaldi guztietan, eta hizkuntzak bete ditzakeen funtzioetatik bitan bakarrik da euskara hegemonikoa.

Gai gara gure egoera deskribatzeko, badakigu herrian zer gertatzen den kontatzen, baina ez dakigu zergatik edo nola iritsi garen egoera honetara, eta ez dakigu zer egin beharko litzatekeen euskarak funtzio guztiak eskura ditzan edo mendeko jarrerak uzteko.

Arnasgunea ote garen? Ziurrenik bai, baina ez hainbatetan deskribatu duten euskararen arkadia orbangabea. Gurean ere erro sakoneko arazoak izan badira. ●